

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BILLODAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Herri finka goldagarrien aprobetxamendua

Billodako Kontzejuak, 2021eko irailaren 16an egindako bileran, erabaki zuen, batetik, lehiaketa bidez esleitzea 3 poligonoko herri finka goldagarrien aprobetxamendua eta, bestetik, ondoren zehazten diren klausula ekonomiko-administratiboen agiria onestea:

#### 1. Erakunde adjudikatzailea

a) Erakundea: Billodako Kontzejua.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

– Billodako Administrazio Batzarra.

– Helbidea: Plaza kalea, 22, Billoda.

– Telefonoa: 674 886 555.

– Posta elektronikoa: [javillodas@hotmail.com](mailto:javillodas@hotmail.com).

– Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte. Oharra: baldintza agiria kontratatzaile profilean argitaratuko da: <https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/>.

#### 2. Kontratuaren xedea

a) Xedearen azalpena: Ilausula ekonomiko-administratiboan agiriko I. eranskinean zerrendatzen diren 3 poligonoko herri finka goldagarrien errentamendua, haietan landu daitekeen azalera aprobetxatzeko.

#### 3. Izapidetzea eta prozedura

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: lehiaketa.

c) Lizitazio oinarria: Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua landu daitekeen hektareako edo horren frakzioko eta urteko, hau da:

Lotea: Jundizko dermioa	250,00 euro/hektarea
Lotea: Prado dermioa	280,00 euro/hektarea
Lotea: Casajera dermioa	260,00 euro/hektarea
Lotea: Gárabo dermioa	280,00 euro/hektarea

Lizitatuzaileek hobetu egin ahal izango dituzte aurreko zenbatekoak.

d) Bermeak:

Esleipendunak, bere gain hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, behin betiko bermea eratu beharko du, hain zuzen, esleipenaren zenbatekoaren (BEZa aparte) ehuneko 5ekoa. Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da eskaintza.

#### **4. Lizitatzailen betekizunak**

Ikusi agiria.

#### **5. Eskaintzak aurkeztea**

a) Eskaintzak aurkezteko epea: 15 egun natural, lizitazio iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 19:00etatik 20:00etara. Azken egun hori larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo egun balioduneko 20:00ak arte luzatuko da epea.

b) Eskaintzak aurkezteko lekua:

- Billodako Administrazio Batzarra.
- Helbidea: Plaza kalea, 22, Billoda.

#### **6. Eskaintzak irekitzea**

a) Lekua: Billodako (Araba) San Kristobal elizan (San Kristobal kalea 28, 01195).

b) Eguna eta ordua: ekitaldi publikoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo lehen igandeko 17:00etan.

#### **7. Gastuak**

Esleipenduna behartuta dago lizitazio honi dagozkion iragarkiak ordaintzera.

Billoda, 2021eko irailaren 16a

*Lehendakaria*

*MIGUEL ÁNGEL MONREAL NAVAS*